

noaua



XX. SOINURBIL HASTERA DOA


Ostegun honetan abiatu eta martxoaren 21 era bitarte luzatuko da musika jaialdia / 12-14

ARGAZKIA: NOAUA



NOAUA

Bi orduko mobilizazioa, Palestinako genozidioa geldiarazteko / 09



NOAUA

M8: "Sistema patriarkalak emakumeen ideiak ikusezin bihurtu ditu" / 15



NOAUA

Guraso talde bat: "Haur Eskolak kaxkoan behar du" / 16



NOAUA

LH6ko ikasleek Elkartasun Azoka antolatu dute egunotarako / 19



Alsazia eta Oihan beltza


IRTEERA 2024ko maiatza

Noaak gidatutako talde bidaiak.
Lasarte-Oriatik irtenda.

943 37 36 13 • info@noaa.eus • Hipodromo Etorbidea, 10 • Lasarte-Oria

noaqa

jarraitu gure sare sozialak



www.noaa.eus

MARTXOAK 8 / EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA



ZUETAZ HARRO

Ahalduntutako emakume bakoitzaren atzean ahalduntzera bultzatu duten beste emakume batzuk egon dira.



"Lehen sektorea, lehenetsi!"

Urbilen hamarnaka traktore eta ibilgailu batu ziren martxoaren 1eko mobilizazioan.

Bi aste pasatxoko tartean, bigarren ikusi ahal izan dugu Urbilmerkatalgunea traktoreez inguratua. EHNE eta ENBA sindikatuak Baso Elkartearekin eta berrogeitik gora eragileren babesarekin protesta eguna deitu zuten martxoaren 1ean Gipuzkoan. Lehen sektoreak egunerokoak dituen jarduerak utzi eta bidera irten ziren, kinka larrian direla ohartaraztera.

Otsailaren 12an, baserriarrek haiek sare sozialen bidez egin-dako protesta egunean ikusitako hainbat aldarri hedatu zituzten martxoaren 1eko mobilizazioan. Ikurriña artean irakurri zitekeen, baserriarrik gabe ez dugula elikagairik, ezta etorkizunik ere. "Baserria bizirik, herriaren tripa beterik", zioen aldarrietako batek. Prezio duinen eske ere irten ziren protestara.



Martxoaren 1eko mobilizazioan hainbat aldarri hedatu zituzten.

Batzar Nagusietara

Baserría bizirik nahi dute, eta horretarako, Gipuzkoako lehen sektore hau lehenetsia aldarrikatu zuten. Urbilen hamarnaka traktore eta ibilgailu batu ziren eta hamaikak pasatxoan, Gipuzkoako hiribururantz abiatu ziren. Han elkartzekoak ziren

herrialde mailan goizean goiz osatu ziren beste bi zutabeekin. Denak batera Donostia erdiguneko kaleak zeharkatu eta Miramonera, Gipuzkoako Batzar Nagusien egoitzara joatekoak ziren, eskuartean zuten dokumentua irakurri eta batzarkideei helaraztera.

Garbigune mugikorra, Santuenean

Martxoaren 7tik aurrera, garbigune mugikorra Santuenean izango da. Era honetan, etxeko hondakinen berrerabilpena eta birziklatzea sustatu nahi da. Hondakinak bere horretan bota, poltsarik gabe. Martxoaren 14an osteguna, garbigune mugikorra Kalezarrea eramango dute.

1964an jaiotako bazkaria ekainaren 1ean izango da

Ekainaren 1ean bilduko dira bazkaritarako. Era honetan, 60. urtemuga ospatuko dute. Non elkartuko diren, informazio hori ez dugu jaso oraindik. Dena den, interesa duenak telefono zenbaki honetara deitu beharko du: 647 458 997 (Mari Jose).

1952an jaiotako bazkaria apirilaren 27an egingo da

Apirilaren 27rako antolatu dute kinto bazkaria. Artzabalgogorri jatetxean batuko dira. Otu-runtza eguerdiko 14:00etan hasiko da. Apirilean egingo bada ere, izena emateko epea zabalik da honez gero. Horretarako, deitu 620 516 715 telefono zenbakira (Javier).

Elkargunearen 3. saioa, Udarregi ikastolako jangelan

Elhuyar ari da partehartze prozesua dinamizatzen. Martxoaren 16an larunbata batuko dira berriro, 10:00-13:30 artean, Udarregiko jangelan. "Elkargunearen helburuak finkatzea, balioak definitzea eta erabilera posibleak jasotzea" izango da hirugarren saioaren xedea.



Argitaratzailea:
Noaua Kultur Elkartea
Bordaberri 3, Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil
943 360 321
elkartea@noaua.eus

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkari koordinatorra:
Imanol Ubeda.
Idazkaria:
Alaitz Aizpurua.

Erredakzio kontseilua:
Aritz Lasarte, Ixaso Orbegozo,
Imanol Ubeda.
Diseinua: Goiena.
Publizitate arduraduna:
Beatriz Alda.

Tel.: 943-360 321
publizitatea@noaua.eus
Banatzaleak:
Iñaki Irazusta, Iban Maritxalar.
Lege Gordailua: SS-668-96.
ISSN: 1136-6818.

Tirada: 2.980 ale.
Inprimategia:
Antza inprimategia. Zirkuitu
ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Usurbilgo Udala

IRITZIA




AINHOA AZPIROZ EIZMENDI

Ñabarduretarako betaurrekoak

Betaurreko moreekin bestela ikusten ez diren ñabardurak ikusten dira, are gehiago martxoaren 8aren bueltan, giroak lagunduta begiak erneago izan ditzakegulako. Betaurreko moreekin gertakari batzuk ez dira oharkabeen pasatzen, arreta pizten digute handiak izan daitezkeen txikieriek.

Treanean emakume bat eta gizon bat elkarrekin hitz egiten doaz. "Ni horrelakoa naiz" errepikatu du gizonak hiru aldiz. Zer esan nahi ote dio? Bera den bezalakoa dela eta ez dela aldatuko? Betaurreko moreekin matxista samarra ematen du komentarioak, eta are gehiago hiru aldiz errepikatu ondoren...

Hurrengo bagoian beste bikote bat doa, aurrez aurre eserita. Emakume gaztea gizon gazteari kargu hartzen ari zaio: "Zuri dena gurasoek eman dizute, haiengatik zauden lekuan". Mutilak batera eta bestera mugituz ukatu egiten du. "Zergatik ez duzu fundamentuzko lan bat bilatzen?", gaineratzen dio neskak. Betaurreko moreekin, emakume ahaldundu bat ikus daiteke, mutil gaztea ez dago harro plantekin neskaren aurrean, neskak helduago dirudi, oinak lurrean dituena, eta mutilari pentsatzen duena esaten dio.



"Betaurreko moreekin bestela ikusten ez diren ñabardurak ikusten dira".

Pare bat eserleku aurrerago mutil gazte bat aurrean duen neska limurtzen saiatzen ari da, baina badirudi neskak ez duela oso gogoko. Esaten duen guztiari buruarekin ezetz erantzuten dio. "Nikantzeman egiten dut nor interesatzen zaidan eta nor ez" bota dio neskak tinko. Mutilak barre egin du, sinetsiko ez balu bezala. Betaurreko moreekin neska ahaldundu bat ikusten da, gauzak garbi dituena, parean egokitu zaion mutilaren lausenguei jaramonik egiten ez diena.

"BETAURREKO MOREAK JANZTEAK BESTE BEGIRADA BAT EMATEN DU, ERNEAGOA, AHALDUNDUAGOA"

Azken bikotea trenik atera denean, bakoitzak bere bidari heldu dio; mutilak eskuinaldera jo du eta neskak ezkeraldera. Elkarrengandik pixka bat aldenitu direnean, mutilak txistu egin dio, baina neskak ez du burua jiratu. Orduan, mutila neskarengana abiatu da; bere pareraino iritsi, besotik heldu, zerbait esan eta alde egin du. Betaurreko moreekin lekuz kanpoko jokaera ikusten da mutilaren aldetik, setatsua, intenzio garbirik ez duena. Neskaren tinkotasunak eta segurtasunak, berriz, lasaitasuna ematen du.

Betaurreko moreak janzteak beste begirada bat ematen du, erneagoa, ahaldunduagoa, eta ñabardurak ikustea ahalbidetzen du. Kontua da betaurreko moreak jantzitako gero eta jende gehiago izatea trenean, kalean, lanean, etxean eta edonon.

Haur eskolaz hitz egiteko bilera deitu du Udalak


Ikasturte honetan, haur eskolako familien kuotaren %62a Usurbilgo Udalak ordaintzen du. Behin-behineko neurri hau iaz hartu zuen, Eusko Jaurlaritzak Partzuergoko haur eskolatan doakotasun unibertsa la ezartzeko asmoa iragarri zuenean. Gogoan izan, doakotasun horretatik aparte geratu zirela herri izaerako haur eskolak, tartean, Usurbilgoa.

Erabakia urtebeterako izango zela azpimarratu zuen Udalak, Hezkuntza Sailak emango zituen hurrengo pausoen ikuskizun, "udalarentzat suposatzen duen esfortzu ekonomikoaz" eta hausnarketa egiteko beharraz ohartaraztearekin batera.

Urtea pasa da eta Udalak aitortu duenez, "aurreikusitako baino denbora gehiago behar izan dugu gaia lantzeko, haur eskolarekin zerikusia duten erpinakugari direlako". Honen harira, "etorkizunera begirako lurzoru sendo eta egonkor bat finkatu nahi izan dugu udaletik: ikastolaren ekarpenak eta iritziak aintzat hartzen saiatu gara, eta hilabeteotan izan dugun iritzi trukaketa oinarri, etorkizuneko udal haur eskolaren proiektua osatzen ari gara".

Martxoaren 6an, Sutegin

Proiektua sendotu asmoz, "zerbitzuaren inguruko araudia eta zerbitzua esleitzeko lizitazioa prestatzen ari gara". Martxoaren 6rako iragarri duten bileran xehetasun gehiago eskainiko dituzte. Sutegin batuko dira, 18:00etatik aurrera.



IRITZIA



ANERREKA INGURUMEN ELKARTEA

Ez zegozkigun espazioak okupatu genituen eta bueltan itzultzeko ordua heldu da

Orbeldiko presak, Oria ibaiaren naturalizazioa eta biodibertsitatearen berreskurapena tratatzeaz gain, erriberako uholdeak areagotzen dituela konturatzeko, nahikoa da argazki hauei erreparatzea. Urak, Aliriko zubia igaro eta laster, Txara baserriaren parean, eskubira ateratzen dira eta erribera lasterbide bat bilakatzen da berriro Zorrotza zubiaren ondoan ibairatzeko.

Ucin parean hasi eta Ugaldea poligono amaiera pareraino doan tarte (Txara), Uholde Arrisku Handiko Eremu izendatuta daude, eta horrela jasotzen da tramitean dagoen Herri Antolamendurako Plan Orokorrean (HAPO).

Urak beti egiten du bere bidea. Bere norabidea jarraitzen du. Indar geldiezina du bere baitan. Ez zegozkigun espazioak okupatu genituen eta bueltan itzultzeko ordua heldu da. Naturak berak jarriko du bakoitza bere lekuan. Berdin dio, presak Chorrout izena badarama ere. Jasanezina dena, ez baitu teknologiak jasagarri bilakatzen.

Zerk du interes orokorra Orbeldin, natur kontserbazioak edota ur bizkorren kanalak? Bata ez da bestearen osagarri, ezta bestearekin bateragarri ere. Klima larrialdi egoeran gaudela sinesten badugu, gure osasuna baldintzatzeraino iritsi den



"Ez da normala, inondik inora, Olinpiar Jokoetako dominak izatea Oria ibaian sekulako eragina izango duen kanal artifiziala eraikitzeak aitzakia".

biodibertsitatearen galeraren testigu izanda, natur ingurunearen erabilera pribaturen aurrean, bioaniztasuna kontserbatu edota

"ZERK DU INTERES OROKORRA ORBELDIN, NATUR KONTSERBAZIOAK EDOTA UR BIZKORREN KANALAK?"

berreskuratzeko lehentasuna izan beharko luke.

Kirol ikuskizunen eraginak aparra bezala desagertzen dira; aldiz, halako obrenak luzaroan dituzte ondorio larriak. Ikuskizunak ez al du errealitatea (bioaniztasunaren galera jasanezina) ezkutatuko.

Ez da normala, inondik inora, Olinpiar Jokoetako dominak izatea Oria ibaian sekulako eragina izango duen kanal artifiziala eraikitzeak aitzakia. Panem et circenses (ogia eta zirkuko ikuskizuna), agintere du bihurtuta.



'Ikusezinak' liburua aztergai, Aitzagaren 30. urtemugan

Martxo Gastronomiko betean den kultur elkartearen 30. urtemugari lotuta antolatu dituzten datozen ekimenen berri segidan.



Miren Azkarate, liburuaren egilea, mikrofonoaren aurrean hizketan.

Miren Azkaratek idatzitako liburua da 'Ikusezinak. Erbestertuen haurrak'. Erbestertu edo iheslarien zazpi seme-alabaren testigantzak jaso ditu liburuan, baita berea ere, 33 urtez Kuban erbestertuta egon den Agustin Azkarateren alaba baita. Joseba Sarrionandiaren laguntza izango du Sutegiko aurkezpen ekitaldian.

Martxoak 21, osteguna

- 19:00 'Ikusezinak. Erbestertuen haurrak' liburuari buruzko solasaldia Sutegiko auditorioan.
- Gonbidatuak: Miren Azkarate liburu-egilea eta Joseba Sarrionandia idazlea.
- Zehaztasunak: "Erbestertuen haurrak Esperientzia pertsonaletik eta arrazoi politikoengatik gurasoen erbestean edo deportazioan jaio, hazi edo bizi izan ziren haur eta gazteak. Herri honetako sufrimenduaren kroniketan inoiz agertu ez direnak. Maltetadun haur eta nerabeak. Ikusezinak ziren. Hala ere, existitu ziren, existitzen dira".

Joseba Sarrionandia, erbestertean 36 urte eman dituen idazlea da.

Miren Azkarate, euskal errefuxiatu baten alaba, preso ohia, kazetaria eta liburuaren egilea".

Ekainak 1, larunbata

Egun osoko jaialdia:

- 13:00 Ekitaldia.
- 13:30-14:00 Fanfarrikant Brass Band.
- 14:00 Herri-bazkaria Askatasuna plazan.
- 18:00 Fanfarrikant Brass Band.
- 19:30 Gunearen irekiera Dj Jotaxorekin.
- 20:00-23:00 Bokatak afaltzeko aukera izango da.
- 22:00 Kontzertuak: Olaia Inziarte, Delirium Tremens, Zea Mays, Dj Jotatxo.
- 06:00 Gunearen itxiera.
- Sarrerak: usurbilkultura.eus plataforman eta Aitzaga tabernan salgai.
- Prezioa: herri-bazkaria 15 euro (egunean bertan 18) eta otordurako zein kontzertu gauerako txartelak 30 euro. Antolatzailea: Aitzaga kultur elkarte.

Fruitu arbolen txertaketak eta sagastien neguko kimaketak, ikasgai

Honatz Alkartasuna Kooperatibak martxorako antolaturiko ikastaroen berri:

Martxoak 8, ostirala

- 15:30-18:30 Fruitu arbolen udaberriko edo zotzeko txertaketa.
- Hizlaria: Josu Osa
- Zehaztasunak: "Neguko txertaketari buruzko ikastaro teoriko-praktikoa. Josu Osa adituaren eskutik, 8 txerto mota baino gehiago ikasiko ditugu".

Martxoak 15, ostirala

- 15:30-18:30 "Sagastien neguko kimaketa, gaixotasunak eta tratamenduak" saioa Potxoenean.
- Hizlaria: Aitor Etxeandia.
- Zehaztasunak: "Neguko inausketa mota desberdinak eta bere helburuak azalduko dira. Ekoizpenaren hobekun-



Josu Osak fruitu arborez jardungo du.

tza. Arbolen erregulazioa fruta adarrak sortuz, airea eta argitasuna bilatu, adarrak berritu. Ongarriketa desberdinen helburuak eta bere aplikazioak ere aztertuko dira. Inausketa praktikak Usurbilgo sagastietan egingo dira".

Izen-ematea:

943 361 114
alkartasuna.eus
Hitzaldi bakoitzaren prezioa, 10 euro.

Posta bidez bozkatzeko epea zabalik

Apirilaren 21ean izango ditugun Eusko Legebiltzarrerako hauteskunde egunari begira, posta bidez bozkatzeko epea zabalik izango da. Hemen epeen berri:

Apirilaren 11ra arte:

posta bidezko bozka eskatzea Correoseko bulegoan edo correos.es atarian.

Apirilak 1-14:

eskatzaileak dokumentu eta boto-paperak jasoko ditu.

Apirilaren 17ra arte:

dokumentazioa eta botoa Correoseko bulegoan aurkeztea.

Informazio gehiago:

euskadi.eus/hauteskundek atarian.

II. Etumeta Literatura Lehiaketan izena emateko garaia

Usurbilen erroldatua egon edota Etumeta AEK euskaltegian matrikulatuak dauden 18 urtetik gorakoei (adin hau izatea, lanak bidaltzeko uanean) zuzendua dago lehiaketa.

Ipuin laburrak izango dira, 650 hitz, gehienez; Times New Roman letra idatziak, 12 neurrian, espazio bikoitzarekin; gai librean idatziko dira; lanak aurrez argitaratu gabeak izango dira, baita lehiaketa batera bidali gabeak ere; euskaraz idatziak behar dute.

Apirilaren 7an amaituko da lanak bidaltzeko epea. Sari banaketa ekainean egingo da.

Informazio gehiago:

blogak.eus/etumeta-euskaltegia-ae



Udalaren eguneroko jarduera gertutik ezagutzeko aukera izango da.

Udalaren kudeaketa txostenak, orain eskuragarri

"Gardentasunean sakontzeko helburuarekin" hartu da erabakia. Txostenak usurbil.eus web orrialdean eskura daitezke.

Usurbilgo Udalaren eguneroko jardueraren berri ezagutzeko beste modu bat ere izango da aurrerantzean. Izan ere, bertatik aditzera eman dutenez, kudeaketa lan hau laburbiltzen duen txostenak plazaratuko ditu hemendik aurrera.

Horretan hasia da jada, "gardentasunean sakontzeko helburuarekin". Ohar bidez gogorarazi dutenez, "barne funtzionamendu berriarekin batera hasi ziren udaleko sail guztiak kudeaketa txostenak egiten: hainbat hilabetez barne mailan soilik erabili ostean, publiko egiten hasi da orain". Horretarako, Udalaren web orrialdean, usurbil.eus atarian sartuz gero, atal propioa sortu dute, "Kudeaketa txostenak" izenekoak.

Elkarlana errazteko

Bertan dituzue ikusgai une honetan, Udala egun egitura-tzen duten hiru lan batzordeen ("Herritarrak", "Lurralde", "Antolaketa") urtarreko txostenak. "Herritarrak" izeneko batzordeak biltzen ditu eus-kara, gizarte zerbitzuak, kiro-

la, hezkuntza, parekidetasuna, aniztasuna eta udaltzaingoa; "Lurralde" izenekoak, ingurumena, hirigintza, obrak eta zerbitzuak; eta, azkenik, "Antolaketa" deritzonak, osasuna, idazkaritza, pertsonalgora, administrazio elektronikoa eta komunikazioa. Udaletik oroitarazi dutenez, "horren helburu nagusia sailen arteko komunikazioa eta elkarlana hobetzea da. Izan ere, aurreko legealdira arte, sail bakoitzak bere batzorde informatzailea egiten zuen; orain, nork bere sailean lan egiten jarraitzen badu ere, batzorde informatzaile zabalago horietan biltzen dira, elkarren berri izan eta elkarlana errazteko helburuarekin".

Hilero hiru txosten kaleratuko ditu Udalak

Aurrerantzean, txosten hauek hilero aipatu atarian plazaratuko dituela iragarri du Usurbilgo Udalak, batzorde informatzaileetara eraman ostean. Beti, aurreko hilabeteko datuak bilduko ditu. Hilero hiru txosten kaleratuko ditu Udalak, batzorde bakoitzeko bana.

Etxeko konponketei buruzko Jabetze Eskola

Martxoaren 11tik maiatzaren 14ra, astelehenean, 17:00-19:00 artean Atallu industriagunean (Zanpiura, 3an). Emakumeei zuzendua dago eta izena martxoaren 8a baino lehen eman behar da bideotatik: parekidetasuna@usurbil.eus / 943 371 951.

Parekidetasun Sailaren esanetan, "tailerraren helburua etxean sortzen diren konponketa txikiak egiteko oinarriko ezagutzak eskuratzea da, halakoak egiteko beldurra galdu eta konfiantza gehiagorekin aritzeko".



12 lagunentzako ikastaroa izango da.

2 orduko 8 saio izango dira, eta hainbat lan ikasiko dituzte: entxufeak konpontzea, iturriak ura galtzen duenean zer egin, apalak jartzea, paretak lisatzea edo pintatzea.

Martxoan beste hiru bisita, 650 Usurbil Bizi ekimenaren eskutik

Herri ondarea hurbiletik ezagutzeko bisita gidatu gehiago iragarri dira 650 Usurbil Bizi herri egitasmoaren baitan:

Martxoak 10, igandea

- 12:00 "Usurbil Museo Irekia" Sutegitik abiatuta.
- Prezioa: 3 euro (18 urtetik beherakoek doan). Eskudirutan ordainduko da bisita gidatua hasi baino lehenago.

Martxoak 23, larunbata

- 11:00-13:30 "Usurbil Museo Irekia" eta Chillida Lekura bisita gidatua.
- Taldea osatu da dagoeneko.

- Antolatzaileak: Usurbilgo Udala, Chillida Leku, 650 Usurbil Bizi.

Martxoak 31, igandea

- 11:00 "Usurbil Museo Irekia" eta Zumeta Arte Estudiora bisita gidatua Sutegitik abiatuta.
- Prezioa: 5 euro (18 urtetik beherakoek doan). Eskudirutan ordainduko da bisita gidatua hasi baino lehenago.
- Izen-ematea: 650usurbilbizi.eus
- Gehienezko bisitari kopurua: 14.
- Antolatzailea: 650 Usurbil Bizi.



Igande honetako bisita gidatua Sutegitik abiatuko da.



Mozioa gehiengo osoz onartu zuen udalbatzak EHBildu eta PSE-EEren aldeko botoekin. EAJ abstenitu egin zen.

Gernika-Palestina herri ekimenaren deialdiekin bat egin du udalbatzak

Mozioak Gazako Lerroaren eta Palestinako lurralde guztien gaineko setioa eta bonbardaketak bertan behera uztea eskatzen du, eta laguntza humanitarioa sartzan dela bermatzea.

Palestinako genozidioa geratu eta palestinar herriaren askatasunaren alde mobilizatu ziren larunbat eguerdian hainbat herrikide eta herri eragile frontoian. Udalak ere gauza bera egitekoa zuen; Palestinako bandera zintzilikatuko zuen udaletxean. Eta mozio baten bidez, gainera, Udalak "6.000 euroko diru ekarpena egingo dio Mundubat GKeri, Gazako herritarrei proiektuak bideratzen laguntzeko".

Osoko bilkuran bertan, alkatetza Agurtzane Solaberrietak azaldu zuenez, Aniztasun Sailetik larrialdi humanitarioetarako gordea duten 10.000 euroko partidatik helaraziko diote aipatu diru kopurua Mundubat elkarteari.

Mozioa gehiengo osoz onartu zuen udalbatzak EHBildu eta PSE-EEren aldeko botoekin. EAJ abstenitu egin zen, testuarekiko adostasuna agertu arren, sufrimendua toki guztietan dagoela argudiatuz.

Mozioa

"Gernika-Palestina herri ekimenak Elkartasun Aktiboa izeneko iniziatiba martxan jarri berri du. Ekimenaren aurkezpenean adierazi zutenenez, zoritxarrez, dagoneko 25.000 pertsona hil dira Israelgo okupazioaren bonbardaketak hasi zirenetik eta sarraskiak, tamalez, ez du etenik. Hildakoek izen-abizenak dituzte eta askotan islatzen den hildakoen "anonimotasun" hori salatuzko, ELKARTASUN AKTIBOA izeneko kanpaina jarri dute martxan, gutxienez, 25.000 pertsonen parte har dezaten honako helburuekin:

1) Ekarpen ekonomiko ematea izango da, batetik, Benjamin Netanyahu nazioarteko epaitegien aurrean eramateko eta, bestetik, Gazako herritarrei Mundubat euskal gobernuz kanpoko erakundearen bitartez proiektuak bultzatzeko honako kontu korrontearen bitartez: ES05

30350083240830140015 (Laboral Kutxa).

2) Gutxienez, 20.000 pertsonok Palestinako bandera eta kanpainaren karteltxoa denda, etxe, ikastetxe, auto edota enpresetan jartzea formatu desberdinetan.

Usurbilgo EHBilduk bat egin du ekimenarekin eta Usurbilgo Udalbatzari gauza bera egiteko eskatzen diogu, mozio honen bidez.

Izan ere, egoera jasanezina da. Palestinaren eta Israelen arteko gatazkaren gogortze izugarria gertatzen ari da. Hamasek urriaren 7an egindako erasoak, Israelgo indar armatuek Gazari ezarritako blokeo,

"BAKE JUSTU ETA IRAUNKORRAK HERRI PALESTINARRAREN AURKAKO OKUPAZIOA AMAITZEA ESKATZEN DU"

bonbardaketak eta era guztietako erasoak horren isla mingarriak dira. Hildakoen kopuruak gora egiten du etengabe, eta Israelen proklamatu duen erabateko gerra-deklarazioak eta bere gobernuak iragarritako oinarritzko horniduren blokeoak muturreko zaurgarritasun-egoeran utzi ditu Gazako herritarrak. Ezin ahaztu, gainera, Gaza hainbat hamarkada daramala setiopean, Israelen palestinarren lurak legez kanpo okupatzearen ondorioz.

UNRWak (Palestinako erre-fuxiatuentzako Nazio Batuen Agentzia) baieztatzen duen bezala, Gazan ikusten ari den suntsipen mailak ez du aurrekaririk, egundoko giza tragedia da. Genozidioa da. Nazio Batuek proportzio epikoko hondamendi humanitario gisa deskribatu dute.

Arestian aipatutako guztia-gatik, Usurbilgo Udalak:

1. Gernika-Palestina Herri ekimenak abiatutako "Elkartasun aktiboa" ekimenarekin bat egin eta 6.000 euroko diru ekarpena egingo dio Mundubat GKeri, Gazako herritarrei proiektuak bideratzen laguntzeko.

2. Usurbilgo udaletxeko balioan Palestinako bandera zintzilikatuko du.

3. Eskatzen du Gazako Lerroaren eta Palestinako lurralde guztien gaineko setioa eta bonbardaketak bertan behera uztea, bai eta laguntza humanitarioa sartzan dela bermatzea eta korridore humanitarioak berehala irekitzea ere.

3. Uste du bake justu eta iraunkorren herri palestinarren aurkako okupazioa amaitzea eskatzen duela.

4. Premiazkotzat jotzen dugu elkarriketa-prozesu bat abian jartzea, bake justu, egonkor eta iraunkorra lortzeko, okupazioaren amaiera eta Palestinako herriak autodeterminazioarako duen eskubidea bermatuz. Hori guztia Nazioarteko Zuzenbidean eta NBeren ebazpenak betetzean oinarrituta".

Bi orduko mobilizazioa, Palestinako genozidioa geldiarazteko



Aztarrika Gazte Asanblada.



Euskal Kantu Taldea.

Palestinar herriaren aurkako genozidioa geldiarazi eta Palestina aske nahi dutela galdegiteko bi orduko mobilizazioa egin zuten larunbat eguerdian.

Palestinar banderak eskuar-tean, mobilizazioekin bat egin zuten Usurbilgo Euskal Kantu Taldeak, Aztarrika Gazte Asanbladak, kultur eragileak batzen

dituen Usurbilgo Kulturguneak, EHBilduk, Sarek, Aitzaga Kultur Elkartek, LAB sindikatuak eta NOAUA! Kultur Elkartek. Larunbateko mobilizazioa,

Gernika Palestina eta Yala Nafarroa herri plataformek asteburuan Euskal Herri osoan deitu zituzten mobilizazioen testuinguruan egin zen.



EHBildu.




LAB sindikatua.



Aitzaga kultur elkarteak.



NOAUA! Kultur Elkarteak.



Pertsonaia nagusiaren larruan Mattin Iribar aktorea sartu da. Zaparra taldekoen bideoklipa lotu diogu QR kodeari.

Zaparra taldekoek John Wine berpiztu dute

Zaparrak 'Azalberitzen' izeneko diskoa plazaratu berri du. 'Orbanak iruditan' aurrerapen kantaren ondotik iritsi da 'John Wine' bideoklipa. Mattin Aierbek zuzendu du western kutsuko ikusentzunezkoa eta herritar ugari aritu dira aktore lanetan.

'John Wine' bideoklipean herritar ugari ikusiko dituzue aktore lanetan. Pertsonaia nagusiaren larruan Mattin Iribar aktorea sartu da. Sheriffa Joseba Aierbe da, eta Karmele Matxain eta Montse Dominguez, sheriffaren laguntzaileak. Sukaldaria Joxemari Alduntzin, harakina Iker Alduntzin eta tabernaria Peio Larrañaga. Pepe Guadix, Ata Romero, Jon Azpiazu, Maite Zubeldia eta Ana Aizpurua ere ageri dira Mattin Aierbek zuzendu duen bideoan.

Kantaren grabazioan, Zaparra taldekoek bi musikariren

laguntza izan dute: Kristonak rock taldeko Pello Artabe abeslaria eta The Hastelen's taldeko Ata Romero harmonikajolea.

Diskoa Martxel Arkarazorekin grabatu dute

'John Wine' kanta –eta 'Azalberitzen' diskoko gainontzeak ere– Andoaingo Garate Studiosen erregistratua izan da. Martxel Arkarazo arduratu da grabaketaz, nahasketaz eta masterizazioaz.

Bideoklipa aldiz, Mattin Aierbek zuzendu du eta lan talde zabal bat aritu da bere aginduetara. Koldo A. Gabarain

argazki zuzendaria, Jon Santamaria Izko muntaia arduraduna eta kredituen egilea, Rubén Otero eta Alex Varela. Ogeita4-ko kameralariak eta Argilun argitazpen enpresak ere jardun zuten grabaketan.

ZAPARRA TALDEKOEN BIDEOKLIPEAN HERRITAR UGARI ARITU DIRA AKTORE LANETAN

Errigorako produktuak eskatzeko azken egunak

Oraingo honetan, oliba-olio birjina estra, arroza, pasta, kontserbak, lekaleak eta ardo loteak eskuratuko dira. Eskabideak egiteko epea martxoaren 13an itxiko da.

Produktuen eskaintza

- Ardoa: bereziak, gorenak.
- Oliba-olio birjina estra.
- Zainzuriak, orburuak, kardua, barazkiak, tomateak, piperrak, arbendolak, txitxirioak, babarrunak, potxak, menestra...
- Pastak.
- Lekaleak.

Egutegia

- Otsailak 25-martxoak 13: eskabideak erigora.eus bidez edo NOAA! Kultur Elkartean.
- Apirila-maiatza: eskatutako produktuen bilketa.
- Ordainketa: online eginez gero bi zatitan ordaintzeko aukera edo eskudirutan dena batera produktuak jasotzerakoan.

Informazio gehiago: erigora.eus

www.noaua.eus
USURBILGO ATARIA

ARTZABAL
BASERRIA · JATETXEA
www.artzabaljatetxea.com

·EGUNEKO MENUA
·KARTA
·RAZIOAK
·HANBURGESAK
·BOKATAK

943 36 91 39

eskura
elikadura eta dietetika aholkularitza
DIABETESA, HIPERTENSIOA,
GIZENTASUNA, ELIKADURA
ETA KOLESTEROL ARAZOAK

688 843 696
Zubiaurrenea 1, 1c Usurbil



Eutsi gureari!

Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura

otsailak 25 - martxoak 13

Eskatu Nafarroa hegoaldeko oliba-olio birjina estra, arroza, pasta, kontserbak, lekaleak eta ardo loteak euskaraz etiketatuta eta ekoizlearen jatorrizko prezioan.



errigora.eus





Zumarte Musika Eskolako kideak 20. Soinurbil musika astea iragartzeko talde argazkian. ARGAZKIA: USURBILGO UDALA.

"Herria, gure ikasleak aberasteko erreminta bat da Soinurbil"

AGURNE ALKORTA, IDOIA ARRUABARRENA ZUMARTEKO LEHENDAKARIA ETA ZUZENDARIA

Aurtengo kontzertuak Aginagan, Usurbilen eta Zubietan izango direla adierazi digute Zumarte Musika Eskolako ordezkariak.

**Soinurbil zertarako sortu zenu-
ten?**

Idoia Arruabarrena: Ezagutzen genituen beste herri batzuk musika asteak bazituztenak. Eskolan ekimen batzuk egiten genituen, baina beste musika eta talde mota asko ikusteko ez zegoen aukerarik. Horregatik, musika aste bat sortzea erabaki zen. Izena bilatu behar izan zitzaion eta Soinurbil hautatu genuen, soinua eta Usurbil uztartzen dituen. Jarrailpen bat emateko asmoz sortu zen. Hitzarmen bat ere sinatu zen Udalarekin urte hartan. Udalak diruz laguntzeko konpromisoa hartu zuen, Foru Aldundiari ere eskatzen dio dirulaguntza,

badagoelako partida bat udalak laguntzeko ekimen horietan. Halako aste bat antolatzeak ekartzen duen guztiaz arduratu behar ginen. Badi-rudi oso gaizki ez dugula egin, hogeigarren ediziora heldu baikara. Usurbildik talde desberdin mota pila batekoak pasa dira. Helburua ere hori zen, Usurbilgo herri osoarentzat izatea.

Zer nolako Soinurbil zegoen zuen buruan?

I.A.: Beti oso desberdinak izatea, denentzako izatea. Orain ekitaldi asko ditugu, hasiera batean hiruzpalau egun izaten ziren. Musika banda ekarri izan dugu helduentzat, beste musika eskola batekin elkar

ezagutzeko trukaketa egin izan da, organoa konpondu zene-tik herritarren artean ezagutarazteko lan egin da...

Zeintzuk izan dira 20 urteotako arrakastaren gakoak?

Agurne Alkorta: Beti oreka bilatu nahi izan dugu; Usurbilek ez duena herritik kanpo

"EZ DUT KONTENPLATZEN MUSIKA ESKOLA GABEKO HERRI BAT; SOINURBIL GABEKOA"

AGURNE ALKORTA

bilatu eta ekartzea. Batzuetan ez genekien funtzionatuko ote zuen edo ez. Halere, egia da urtero eskertza asko iristen zaizkigula.

Zer eman eta zer jaso du Soinurbiletik Zumarte Musika Eskolak?

I.A.: Musikari are eta garrantzia handiagoa eman eta herritarrek, gure ikasleak aberasteko erreminta bat da Soinurbil.

Soinurbil hedapen prozesu batean dagoela esan daiteke?

A.A.: Hau dator herri mailan Kulturgunea egiten ari den lanaren ondorioz. Kulturgunetik sustatzen ari gara genero aniztasuna eta herri zein auzoz betetako udalerrri honetan saiatu behar gara emu desberdinetara zabal-tzen eta ez zentralizatzen. Horri erantzunez, gako horiek kontutan hartuta saiatu gara Soinurbil ere hedatzen, ari gara pausotxoak ematen. Iaz, Aginagako Eliza Zaharrean egin genuen kontzertu polit bat Orbeldiren laguntzarekin. Aginagarrek urtero errepikatze-ko gonbita egin ziguten, guretzat ere oso esperientzia polita izan zen eta mantendu nahi izan dugu aurtan. Oraingoan, gehitu nahi izan dugu Zubieta. Umeentzako Ene Kantak formatuarentzat askoz egokiagoa zen Zubietako frontoia. Beraz, Aginagan, Usurbilen eta Zubietan izango dira kontzertuak aurtan.

Soinurbilek izandako bilakaeraren ispilu izan da Zumarte ere ezta?

A.A.: Ez dut kontenplaten musika eskola gabeko herri bat; Soinurbil gabekoa. Guretzako modu natural batean dago musika eskola, sendotua, bere tokia duena. Zortedunak gara. Elikatzen da herria Zumartez eta alderantziz.

Azken urteotako eskaintza ikusita, Soinurbil Zumarte eta he-



Zumarteko zuzendaria eta lehendakaria, Soinurbilen kartela eskuartean dutela.



Alaitz Artolak eta Jon Imanol Etxabek eskainiko dute kantu-piano errezitala.

riaren arteko zubi dinamiko da ezta?

I.A.: Hasieran, ekitaldi gehienak Sutegi barruan egiten genituen, batzuk nahitaez bertan egin behar ziren. Baina azken urteotan saiateren ari gara Soinurbil eta eskolako emanaldiak kalera ateratzen. Hala, jendeak gehiago konektatu, ezagutu eta gozatzen du.

Hurrengo 20 urteak nola irudikatzen dituzue?

A.A.: Formatu honetan eroso sentitzen gara, eskaintza adin guztietara eta tokietara zabaltzen ari gara. Gizartean ematen diren aldaketei egokitzen saiatuko gara. Aurten, adibidez, Landarbaso abesbatza edota Andoaingo musika banda itzuliko dira. Hitzordu horiekin azken 20 urteotako ekitaldiei keinua egingo diegu. Horrez gain, beti diogu organoari eta gure ikasleei toki bat egin behar diegula, baina hortik aurrera sartu dugu umeen emanaldi bat, seguruen indarra izango duena edota Jon Imanol Etxabe irakasle usurbildararen emanaldia.

I.A.: Jendea animatu dadila, talde oso potenteak datoz. Halako taldeak ikustea zaila izaten da batzuetan, aukera baliatu beraz.

Nola doakizue erdibidea igaro duen ikasturtea?

I.A.: Urtero bezala ondo eta ikasleak oso motibatuak daude. Talde piloak ditugu, ikasleen

eta irakasleen artean oso giro polita. Une oso politean dago.

A.A.: Horren erakusleho argiena da, bi urtean behin beste musika eskolekin egiten dugun trukaketa esperientzia. Aurten, Jacara goaz, hangoak lehenago etorriko dira. Ikasleentzako aberasgarria da erabat, beste jende bat eza gutzea. Duela bi urte Gironakoekin izandako esperientzia hain ona izan zen, harrera horri helduko diogula, ahal bada bi urtero.

Herrira gerturatu behar izan duzue urteotan, orain herria datorkizue Zumartera. Nola bizitzen ari zarete aldaketa hau?

A.A.: Eraikin berri honek aukera berri piloa irekitu dituguetzat baina baita herriarentzat ere. Oso baikorki ikusten dut erabiltzea, Zumarte musika eskola denona da eta erabiltzeko dago.

I.A.: Iraunkorki egoten dira txalaparta eskolakoak, dantza garaikide taldea edota Usurbil 1936 elkarteak. Horrez gain, eskaera solteak heltzen ari dira.

"HALAKO TALDEAK IKUSTEA ZAILA IZATEN DA, BERAZ SOINURBILEKO AUKERA BALIATU EZAZUE"

IDOIA ARRUABARRENA

"Opera eta zarzuela obrei ere tarte bat eskainiko diegu"

Alaitz Artolak eta Jon Imanol Etxabe herrikide eta Zumarteko irakasleak, Kantu-Piano errezitala eskainiko dute estreinakoz, martxoaren 12an 18:30ean Salvatore elizan.

Zer osagai izango ditu zuen emanaldiak?

Jon Imanol Etxabe: Alaitz eta biok Musikenetik elkar eza gutzen gara. Beti izan dugu elkarlanean aritzeko gogoia eta hauxe iruditu zitzaigun aukera polita. Eskainiko duguna da, bidaia bat kantu lirikoaren estilo desberdinetatik. Bigarren zatian, opera eta zarzuela obrei tarte egingo diegu. Guztia azalpento baten argituko dugu.

Etxera bueltan zatoz. Nolako izan da itzulera?

Badira urte pare bat Zumarten nagoela kantu irakasle eta abesbatzen zuzendari gisa. Niretzat berezia da etxean halako zerbait egin ahal izatea eta oso eskertua nago aukeragatik. Zumarten ikasle garaian, abesbatzan kantatu eta saxofoia jotzen nuen. Gerora, kontserbatorioan aritu naiz sei urtez, Musikenen lau urte. Orain mastera egiten ari naiz. Guztia Zumarten hasi zen eta asko zor diot. Bueltan oso ondo hartu naute. Esperientzia oso

polita izaten ari da Usurbilgo haurrei musikara gerturatze-ko aukera ematea.

20. ediziora heldu da Soinurbil. Zure ibilbideari ere lotua dago...

Ikasle garaian kontzertuak eskaintzen genituen, Soinurbilen baitan kokatzen zela oso kontziente izan gabe. 20 urte beteta badirudi herriak gustuko duela. Barrutik sustatzen ez badugu, oso zaila da musikak leku propioa bere kabuz izatea. Horregatik, kasu honetan, ekimenok antolatu eta herrian ondo erantzutea zoragarria da.

Zer nolako gonbita egin nahi duzue zuen saiorako?

Edonorentzako dago pentsatua emanaldia. Kutsu pedagogiko hori duen heinean, denentzako errazago eta eskuragarriago izango den emanaldi bat izango da. Maitasun handiz eraikia, oso-oso entzuterraza eta gozatzeko aukera polita izan daiteke, gainera, Salvatore dagoen akustikarekin.



Martxoaren 13an asteazkenarekin, Zumartekoak Azpeitiko musika eskolakoekin batera arituko dira Sutegin.

Soinurbilen XX. edizioak puntako egitaraua dakar

Ostegun honetan ekingo dio Zumarte Musika Eskolak 20. ediziora heldu den Soinurbil zikloari. Herri sorkuntza tartekatuko dute hitzorduetan, elkargune gehiagotara hedatuko dute zikloa eta iraupenari begira, astebetetik gorakoa izango da. Lerrootan duzue egitarau osoa.

Martxoak 7, osteguna

- 18:30 Zumarte Musika Eskola eta Orbeldi Dantza Taldearen emanaldia, Aginagako Eliza Zaharrean.
- Zehaztasunak: "Zumarte Usurbilgo Musika Eskolako talde instrumentalek kontzertua emango dute. Orbeldi Dantza Taldeko kideek ere parte hartuko dute".

Martxoak 11, astelehena

- 18:00/19:00 Organoaren erakustaldia Salvatore Elizan.
- Zehaztasunak: "Usurbilgo Organoa berezia da. 1907an, Parisen eraiki zuten, Cavallé-Coll lantegietan. Ospe handiko frantziar baroi bat izan zen haren lehen jabea (l Espée baroia); Ilbaritzen (Baionatik gertu) zuen jauregirako eskatu zuen organoa eraikitzeko. Lehen Mundu Gerra ondorengo diru-eskasiak zi-

rela eta, baroiak ondasun batzuk saldu behar izan zituen, eta horien artean, organo eder hau. 1920 inguruan, Usurbilgo Salvatore parrokiak hain baliotsua den tresna erosi zuen zenbait herritarren ahalegin ekonomikoari esker. Honen bestez, 100 urtetik gora egin ditu organoak Usurbilen. Azken urteotan zaharberitze-lan handiak egin dituzte Usurbilgo organoan. Joan Luis Atxegaren eskutik Usurbilgo organoa gertutik ikusteko aukera paregabea izango dugu".

Martxoak 12, asteartea

- 18:30 Kantu-piano errezitala Salvatore Elizan, Jon Imanol Etxabe eta Alaitz Artolarekin.
- Zehaztasunak: "Alaitz Artola piano-jotzaile amezketarrak eta Jon Imanol Etxabe abeslari usurbildarrak kantu errezitala egingo dute lehen aldiz

Usurbilen. Errezitalak bi atal izango ditu: lehengoan, oratorioa eta abesti lirikoak eskainiko dituzte, Mendelssohn, Schubert, Ravel, Vaughan Williams eta Escuderoren obrekin, besteak beste. Bigarrenean, baritonoen erreperatorioko opera eta zarzuela ezagunenak interpretatuko dituzte (Puccini, Donizetti,

"JOAN LUIS ATXEGAREN ESKUTIK ELIZAKO ORGANOA GERTUTIK IKUSTEKO AUKERA IZANGO DUGU MARTXOAREN 11N ASTELEHENA"

Moreno- Torroba, Guerrero...)".

Martxoak 13, asteazkena

- 18:30 Azpeitiko musika eskolarekin trukea Sutegiko auditorioan.
- Egitaraua: -Juan de Antxieta Musika Eskola: piano, flauta, perkusio eta soka taldeak. -Zumarte Musika Eskola: instrumentu-taldeak.

Martxoak 15, ostirala

- 19:00 Erromintxelak, 2021ean Arrasaten sortutako swing taldea Mikel Laboa plazan (euria balitz, frontoian).

Martxoak 16, larunbata

- 11:30 "Ene Kantak" haurrentzako ikuskizuna Zubietako frontoian.
- Sarrerak: 4 euro aurrez esku-ragarri usurbilkultura.eus-en.

Martxoak 16, larunbata

- 19:00 Landarbaso Abesbatza Salvatore Elizan.
- Zehaztasunak: Bakarlarria: Erik Carrero. Perkusioa: Jon Padilla. Pianoa: Miren Gabirondo. Zuzendaria: Iñaki Tolaretxipi.

Martxoak 17, igandea

- 12:00 Andoaingo Musika Banda kalean, 13:00ean frontoian.

Martxoak 21, osteguna

- 18:30 Zumarteko ikasleen kontzertua Azpeitiko San Agustín Kulturgunean.
- Zehaztasunak: "Azpeitiko Musika Eskolako gonbidatuta, Zumarte Musika Eskolako ikasleak Azpeitira joango dira musika-trukea egitera. Zumarte Musika Eskolako ikasleek urtean zehar eskolako taldeetan lantzen dutena aurkeztuko dute Azpeitian".

Antolatzaileak:

Zumarte Musika Eskola, Usurbilgo Udala.

Laguntzaileak:

Usurbilgo Salvatore Parrokia, Foru Aldundia, Kutxabank.

"Sistema patriarkalak emakumeen ideiak ikusezin bihurtu ditu"

Emakumeen Egunera begirako mozioa onartu zuen udalbatzak gehiengo osoz iragan ostegunean eginiko osoko bilkuran.

Testuak bidezkotzat jotako aitortza egin nahi du ate joka dugun Martxoaren 8aren harira. Izan ere, "bidezkoa da gure gizarteak historian zehar eraldaketa feministak eragin dituzten emakumeen belaunaldiekiko zorra aitortzea, bai genero-agindu eta genero-estereotipoen aurkako erresistentzietan, bai mugimendu feministaren borroka kolektiboetan".

Iraganera begira, testuak oroitarazten duenez, "sistema patriarkalak emakumeen ideiak ikusezin bihurtu ditu eta haien aktibismo politiko eta soziala ukatu ditu, beraien aldarrikapenak isilaraziz eta komunitateen aldeko lorpenen ebidentziak ezabatuz. Gainera, sistematikoki ezkutatu dira jatorri eta tradizio kultural desberdinetako emakumeen, emakume arrazializatuen, lesbianen, dibertsitate funtzionala duten emakumeen eta adineko emakumeen ekarpenak".

Adineko emakumeak arretagune
Egoera hau iraultzearen aldekoa da udalbatzak onarturiko mozioa. "Zehazki, arreta jartzen dugu adineko emakumeen egungo belaunaldian, sistematikoki estereotipatua eta diskriminatua den belaunaldi horretan, sozialki garrantzirik gabekoa bihurtu duten horretan. Gainera, ikusezintasun hori ahulezia handiagoko egoerak ezkutatzeko ari da, hala nola, prekaritatea eta pobretzea, nahi ez den bakardadea, osasun-arazoak eta indarkeria matxista motak".



Emakumeen belaunaldien historia berreskuratzeko hainbat konpromiso hartu ditu Udalak.

Testuinguru honetan, adineko emakumeen egungo belaunalditik hasita, "emakumeen belaunaldien historia berreskuratzeko eta emakumeek eta borroka feministek udalerrien bizitzari eman dioten balioa aitortzeko" hainbat konpromiso hartu ditu Udalak; besteak beste, honako hauek: emakumeen memoria historikoa aitortu eta berreskuratzeko proiektuak garatzea, une historiko bakoitzeko mugimendu feministak aintzatesten laguntzea, belaunaldien arteko topaketa eta elkarrizketa guneak babestea, emakume bereziki adinekoen ikusgarritasun soziala sustatzea eta harreman zein partaidetza moduetan arreta jarriko duten proiektuak bultzatzea, haien ahalduntze ekonomikoa bermatzeko diru-sarrera eta pentsioen eskaera babestea, bereziki adineko alarguentzako laguntza eta prestazio ekonomikoak ezagutaraztea, laguntza eta zaintza zerbitzu publikoak indartzea edota adineko emakumeen

aurkako indarkeria matxistaren eragina ikertzea.

Bi testu

EHBilduk aurkezturiko mozioaren aurrean, EAJ-PNVk testu propioa proposatu zuen. "Oso antzekoak dira", zioen jeltzaleen bozeramaile Xabier Otxoak. Euskadiko Udalen Elkartearen (EUDEL) baitan adostutakoa izan zela mozioa eta "ez dugu ikusten beharrik moldatzeko" gaineratu zuen. Udal gobernu taldearen testuaren aurrean abstenituko zirela baina EUDELena bere horretan babestuko zutela iragarri zuten aipatu udal taldetik.

Udal gobernu taldetik harrituraz hartu zuten EAJk

"BIDEZKOA DA ERALDAKETA FEMINISTAK ERAGIN DITUZTEN EMAKUMEEN BELAUNALDIEKIKO ZORRA AITORTZEA"

aurkezturiko testua. Izan ere, EHBilduk proposaturikoa ia testu bera zela azaldu zuen alkate Agurtzane Solaberrietak. Martxoaren 23an irekiko duten Emakumeen Etxearen aipamena txertatu eta emakume belaunaldien arteko topaketari buruz testuak dioena zehaztu nahi izan zuela adierazi zuen, EUDELen baitan adostutako testua alderdi politiko guztien babesarekin ez zela onartu argitzearekin batera.

Bi mozioak bozkatu zituzten. EAJk defendaturikoak PSE-EEren aldeko botoa jaso zuen, EHBilduko udal ordezkariak aurka bozkatu zuten, eta beraz, gehiengoaren babesik ezean, ez zen onartu. EHBildurena bai, udal gobernu taldeko ki-deen aldeko botoez gain, PSE-EEren udal ordezkariaren babesa jaso zuen eta EAJko zinegotziak abstenitu egin ziren. Petri Romero PSEk bi mozioak babestu nahi izan zituen, EHBildukoak txertaturiko zehaztasunak ontzat ematearekin batera.

Martxoak 8ko egitaraua

- 18:00 Emakumeen Etxeko II. Asanblada egingo da Potxoenean.
- 19:30 Elkarretaratzea, Mikel Laboa plazan.
- 21:00 Pikoteo musikatua, Artzabal jattetxean. Sarrerak otsailaren 28an jarri zituzten salgai, 10 euroan, Aitzagan, Txirristran eta Artzabal.
- Antolatzaileak: Kafe Tertulia talde feminista, Emakumeen Etxeko talde sustatzailea, Usurbilgo Udala.



"Haur-eskolaren etorkizunari buruz hausnartzen ari dira Udala eta Udarregi Ikastola, baina gurasoekin ez dute ezer kontrastatu oraindik".

"Haur-eskolak kaxkoan behar du, eraikin duin batean"

GURASO TALDEA HAUR-ESKOLAKO GURASO TALDE BAT

Haur-eskolaren orainaz eta etorkizunaz kezkatuta, guraso talde bat bilerak egiten hasi da denen artean hausnarketak eta konponbideak bultzatzeko asmoz.

Haur-eskolara haurrak eramaten dituen guraso talde bat elkartzen hasi da azken hilabeteetan eta haur-eskolaren etorkizunaz, kokapenaz eta egoeraz hausnartzeko bilerak aurreikusituz. Gutun bat ere idatzi diote udalari eta hura osatzen duten hiru alderdietako zinegotzietan. Haratago joateko asmoa dute, eta haur-eskolari buruzko informe teknikoak eskatuko dituzte, auto babeserako plana, amiantoarena eta abar. Azken bilera asteazken honetan egin dute Potxoeneko sotoan. Proiektu honen berri izateko, horra guraso taldeak NOAUA!ri aipatutakoak.

NOAUA! 2023ko maiatzean, udal hauteskundeetako kanpaina batean, haur-eskolaren gaineko hausnarketa egingo zutela, horixe zehaztu zuten Udalean. Erantzunen bat jaso duzue eskaera honi erantzunez?

Gaur-gaurkoz dakiguna da haur eskolaren etorkizunari buruz hausnartzen ari direla Udalen eta Udarregi Ikastolaren artean, baina gurasoekin, oraindik, ez dute ezer kontrastatu. Espero duguna da eraikinaren gaiaz ere hausnartu izana eta, zehazki, kontuan hartzea gure eskaera zein den: haur-eskolak kaxkoan behar duela, eraikin duin batean, eta funtzionamenduak herritarron beharrak ase behar dituela.

Haur-eskolaren kokapena gai zentraletakoa izan da urte luze-tan. Kalezar auzoan dagoela kontuan hartuta, guraso askorentzat haraino haurrak eguneroko eraman eta ekarteak sor ditzakeen arazoak tarteko. Zein eskaera dituzue?

Lehenik eta behin, ezinbestekoa iruditzen zaigu haur-es-

"ZAINZA EKOSISTEMAK BEHARRA DUEN PERTSONA ORO BARNEBILDU BEHAR DU"

kola kaxkoan egotea. Usurbilgo Elkargunea Ikastola pareko belardian eraikitzeke asmotan dira. Bada, proiektu horren kontra ezer eduki gabe, toki hori ezinhobea da haur-eskola kokatzeko, hainbat ikuspuntutatik. Hortaz, uste dugu aukera ona dela lur zati horri eman dakioken erabilerari buruzko beste proposamen bat mahaigaineratzea eta irekiko den parte-hartze prozesua aprobetxatzea hautabide guztiak aztertzeko. Bestalde, gauza jakina da gizartea astiro aldatzen dela eta zaintzailearen figurak emakume aurpegia duela oraindik. Ikastola pareko belardian eraikiko balitz haur-eskola, fisikoki ere bateratuko litzateke herriko hezkuntza eskaintza nagusia (0-16 urte). Bi haur edo gehiagoko familiek, ume bat baldin badute 0-3 urteko etapan, egunean bitan joan behar dute Kalezarrera eta Gernika ibilbide / Alperro Buru kale ingurura, eta, hala, erdira murriztuko lirake joan-etorriak. Horrek ongizatea dakar zaintzaileen eguneroko dinamikan; izan ere, joan-etorriak murrizteak zuzeneko eragina du karga mentalean, estresean, presan, denbora-politiken prekarizazioan, ekologian, autoen erabileran, eta abar. Beraz, zaintzaileak zaintzeko modu oso eraginkorra da eta herritar askori egiten dio mesede.

Haur-eskolarako bidea nola egin ohi duzue (oinenez, auto...)? Orduetarik edo distantziak zer-nolakoa arazoak sortzen dizkizute? Kasuistika askotarikoa da. Agian, osasuntsu dagoen norbaitentzat Alperro Buru kaleetik Kalezar auzora arteko distantzia ez da luzea, baina eguneroko bitan egin behar bada, ume txiki bat eskutik hartuta edo besoetan duzula eta bestearen orgatxoari bultzaka, edota aitona-amonak baldin badira distantzia hori ibili behar dutenak, edo euria egiten badu, ohikoa da eta izan-

→ go da autoa hartzea. Kontu horrek lotura estua du denboraren politikekin, egunero-koan joan-etorrien denbora aurrezteko ez ezik, bertatik bertara oinez ibiltzeko aukera ematen baitu. Bide batez, 2024ko udal aurrekontuen arabera, 175.000 euro xedatu dira "Haur-eskolako bidea konpontzeko", baina, egiaz, Kalezarko bidea konponduko da, Egurtzegira doana.

Honi lotuta, martxoaren 8a gainean dugu eta zaintzaren gaia mahai gainean jarriko dugu beste behin. Zein neurritarainoko oztipoak aurkitu dituzue gai honetan kokapenaren ondorioz? Zaintza edo feminismoaren gaian beste zerbait aipatu nahi zenukete?

Udalak behin baino gehiagotan aipatu du Usurbil zaintzen herria dela eta zaintzen ekosistema eredugarria duela. Bada, ekosistema horrek zaintza behar duten pertsona guztiak hartu behar ditu barnean, eta askotarikoak dira: haurrak ere ekosistema horren barruan daude, mendekoak eta zaurgarriak direlako. Duela gutxi, Haur eta Nerabeen Lege berriaren harira, honako hau aldarrikatu zuen Oihana Etxebarriak: "Alkate, ez dugu zabu edo txirristarik nahi, hiria/herria nahi dugu". Alegia, haurren Euskal Herri bat, 1,40 metroko altueratik behera begiratzen eta sortzen duena. Usurbilen ere jarrera hori erakustea nahi genuke: Haurren Usurbil nahi dugu, 1,40 metroko altueratik behera begiratzen eta sortzen duena. Azkenik, zerbitzuaren funtzionamenduak kontuan hartu behar ditu herritarren beharrak, kontziliazioari begira, batez ere. Gaur egun, ez dago malgutasunik eta herritar ba-



"Udal haurtzaindegiak dituzten beste udalerrri batzuetan, zerbitzua doakoa da. Oiarztunen, kasurako". Jangela bakarrik ordaintzen omen dute.

tzuek beste udalerrri batzuetako haur eskoletara eraman behar izan dituzte beren haurrak, lan egoera aldatu edo ezbeharren bat izan dutelako, edo haur-eskolaren zerbitzua beharrezkoa izango zutenik ez zekiten ezin izan dutelako plazarik lortu.

Haur-eskolen doakotasunaren gaia azaleratu zenuten maiatzeko bileran. Eskaintza publikoko haur-eskolen kasuan, doakotasunetik kanpo geratu zen Eusko Jaurlaritzaren planteamenduetatik eta Udalak bere gain hartu zituen kuoten bi herenak. Zertan dira gauzak orain?

"DATORREN URTEAN HAUR ESKOLAKO KUOTAK ORDAINTZEN JARRAITU BEHARKO DUGU"

Udal haurtzaindegiak dituzten beste udalerrri batzuetan, Oiarztunen, kasurako, zerbitzu hori doakoa da (jangela ordaintzen da), eta badira bide hori hartzea erabaki duten beste udalerrri batzuk ere, adibidez, Andoain. Usurbilen, aldiz, itxura guztien arabera datorren urtean kuotak ordaintzen jarraitu beharko dugu, neurri hori behin-behinekoa zelako eta haur-eskolaren mantentze eta ikuskatze lanei esleitutako diru partida erabili zuelako Udalak kuoten bi herenak bere gain hartzeko. Hala, mantentze behar horiek berriz ere atzeratu egin dira,

"ELKARGUNEA EGIN NAHI DUTEN BELARDIA EZINHOBEA DA HAUR-ESKOLA ERAIKITZEKO"

agerikoak eta premia handikoak izan arren.

Eraikinaren mantenu beharrak ere pil-pilean egon dira. Zein dira eguneroko erabileran ikusten dituzten behar nagusiak?

Arazoak larriak eta ugariak dira. Esaterako, 0-1 urtekoen gelan hezetasunak izan zituzten iaz. Aurten 1-2 urtekoak daude gela horretan, eta duela oso gutxi gelaz aldatu behar izan dituzte haurrak hodi bat lehertu delako. Eraikinetik patiora harriak erori ziren, eta, zorionez, ez zuten inor harri-patu azpian, baina arriskua hor dago; eta gutxienez zorrotan batean fibrozementu amiantoduna dago. Azterketa tekniko bat egin beharko litzateke egoera eta arriskuak benetan zein diren jakiteko.

Eskaerak ugari dira, baina zein da zuen egunerokotasunean presazkoen hartzen duzuen alderdia?

Alde batetik, Elkargunearen parte hartze prozesua hastear den honetan, iruditzen zaigu abagune hori baliatu beharra dagoela haur-eskolaknon beharko lukeen pentsatu eta aztertzeke, inguru hori delako kokapenari dagokionez aproposena. Beraz, parte hartze prozesu horrek nolabaiteko presa gehitzen dio alderdi horri. Bestalde, haur-eskolaren eraikin berria planteatu eta gauzatzea garrantzitsua da, baina horrek ez du kentzen premia-premiazkoa denik haur-eskolako eraikina duina eta segurua izatea bitarte horretan. Amaitzeko, harrizten gaitu oraindik gai honi bueltaka jarraitu behar izateak, urtero errepikatu behar ditugulako eskaera hauek eta guztiz baztertuta dagoelako kontu hau, hainbesteko garrantzia izan arren.

Kima
MASAJE LEKUA

· KIROL MASAJEA
· MASAJE TERAPEUTIKOA
· KOLONAREN HIDROTERAPIA

Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

Zuen publizitatea hemen

943 360 321

publizitatea@noaua.eus



Onintza Gartzia eta Aitor Agirre, ekimenaren sustatzaile eta parte hartzaileak.

Bertsolaritzara hurbilketa, Korrikaren atarian

Bertsolaritza Etumeta AEK euskaltegiko ikasleengana hurbiltzeko hitzordu berezi eta interesgarria antolatu dute 23. Korrikaren atarian.

Badatorren euskararen aldeko lasterketaren harira sortutako Korrika Batzordean aurkeztu zuen Onintza Gartzia herrikideak bertso saio hau eta bilgunetik bideratu ostean, martxoaren 13rako finkatu dute. "Zarautzen ere parte hartzen nuen eta han ondo funtzionatzen zuen ekimena" zela azaldu dio NOAUA!ri. Bi zati izango ditu hitzorduak; trebakuntza zatia, eta segidan, herrikideak partaide izango dituen bertso saioa. Gaiak jartzen Gartzia bera arituko da. Onintzak osatu du parte hartzaile taldea; batetik, ostegunero 18:30etan Potxoeneko sotoan bertsoan libreki aritzeko biltzen diren Aitor Agirre eta Uxue Fernandez herrikideak, Udarregi ikastolan bertsolaritzari lotutako saioak eskaintzen dituen Lier-

ni Rekondo eta Onintzaren Zarauzko ikastolako lankide Antton Fernandez.

Herrikideak oholtzan

Euskaltegiko ikasleak izango ditu hartzaile saio honek. "Taldea eta maila ezberdinetako jendea bildu daiteke eta hori polita da", nabarmendu digu Gartziak. Korrika Kulturaleko hitzorduak herrian barrena zabaldu asmoz, Aginagako Eliza Zaharra Elkargunean egingo dute, gutxitan bezala herrikideak oholtzan kokatuko dituen ekitaldia. Izan ere, bertsoan ariko direnen artean izango da Aitor Agirre. Haurtzarotik ikastolan Amaia Agirrearen eskutik hainbat klase jaso ostean, "eskolarteko bertso txapelketetan abestutakoa naiz", azaldu dio NOAUA!ri. Duela bost bat urte,

zaletasun honi bide emateko taldea osatu zuten Potxoenean. "Taldea irekia da. Etorri kantatzaera", egin du gonbita. Berriki, Santa Ageda bezperan ere koplatan entzun ahal izan genuen usurbildarra. "Helburua ez da kalean kantatzea, baina norbaitek deitzen digunean gustura abesten dugu. Geure buruari erronka jartzea gustuko dugu". Halere, nabarmendu digunez, Korrikaren harira antolatu den hitzordu honetan, "halako bertso saio mota batean parte hartuko dudana lehenengo aldia izango da".

Talde kide du baita Uxue Fernandez. Aginagako saioa, Potxoenean "astero egiten duguna jendaurrean egiteko aukera" izango dela aurreikusi du, pizgarri edo erronka moduan ikusten du hitzordu hau. "Didaktikotik badu saioak, ez da ohiko jaialdi egiturako plaza bat. Akaso, bertsolaritzaz

**ONINTZA GARTZIA:
"TALDE ETA MAILA
EZBERDINETAKO
JENDEA BILDU
DAITEKE ETA HORI
POLITA DA"**

hainbeste "kutsatu" gabeko jende baten aurrean kantatzeak mugiarazten zaitu", izan ere, bere esanetan, "bada ezberdina, polita zentzu horretan". Bertsoak berarentzat duen magiaren "zipriztinen bat iristen bazaio norbaiti" baliagarritzat jo du saio hau. Oroitarazi digunez, aspaldidanikoa da bertsolaritzarekin duen hartuemana; 1995. urtetik Urretxuko bertso-eskolako kidea, 2001ean eskolarteko bertsolari txapelketan abestutakoa da, Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan ere bai. Aurten jokatu den lehiaketa horren ediziorako izena emana duela iragarri digu Fernandezek.

Bertso saio berezi honetan gai jartzaile lanetan ariko da ekimen honen koordinazioaz arduratu den Onintza Gartzia. Sorterri duen Zarauztik dator kio zaletasuna, ikasle garaitik. "Andereño Rosa egokitu zitzazigun, hango bertso-eskolaren sortzaileeko bat. Harekin zaila zen ez bertso zaletzea", oroitu digu. Berari esker zaletu eta eskolarteko txapelketan parte hartu zuen eta Rosaren lekukoa hartu zuen egun lantoki duen ikastolan. Bertso-eskolan "nahiko talde handia gaude" azaldu digu. Horrez gain, gai jartzaile gisa trebakuntza saioak jasotakoa da Onintza.

Elkargune baten eskaintza

Bistan denez, asko eman die bertsolaritzak lerrootako protagonistei. "Hitzeekin jolasteko modua da. Asko erabiltzen dut egunerokotik ateratzeko", adierazi digu Agirrek. Horrekin batera, bertsolaritzak "oso jende ezberdina elkartzeko gune bat" eskaintzen duela gaineratu du Gartziak, beste lagunarte bat. Horretan eragin nahi dute baita hilaren 13ko saioarekin, "bere kabuz bertso saio batera gerturatuko ez direnengana gerturatzea. Agian, gero, haien kabuz animatuko dira beste saio batera. Zer ederra litzatekeen hori".



Datorren asteko elkartasun azokaren antolatzaileak hitzordua iragartzeko kartela eskuartean dutela.

Azoka solidarioa, AEK laguntzeko

Udarregi ikastolako LH 6. mailako ikasleek elkartasun azoka antolatu dute datorren asterako, badatorren 23. Korrikara begira ikastolak eresia duen kilometroa ordaintzen lagundu eta diru ekarpen hori AEK-ri helarazteko.

Euskararen aldeko datorren lasterketan lekukoa hartuko dutenen artean izango da Udarregi ikastola. Erosia duten kilometroa ordaintzeko eta diru ekarpen horren bidez AEK laguntzeko azoka solidarioa antolatu dute LH6. mailako ikasleek datorren asterako Agerialdeko patioan. "Egoera onean dauden jostailuak, janaria, liburuak eta eskuz egindako gauzak egongo dira salgai", iragarri diote ekimen honen sustatzaileek NOAUA!-ri; tartean, baita Korrikarako petoak ere.

Ohartarazi dutenez, erositako jakiak (glutendun eta gabeko gozogintza, patata tortila...) etxera eraman nahi izanez gero, salmenta postura taperrarekin joateko deia egin dute. Elikagaiok ikasleek etxetik eginda eramango di-

tuzte elkartasun postu honetara.

Laguntza AEK-ra

Hitzorduaren xehetasun eta helburuak azaltzeko ondoko argazkikoa bezalako kartelak sortu dituzte. Euskarri desberdinetan ari dira iragartzen ekimena; ez soilik eskuartean duzuen aldizkari honen bidez, baita ikastolako informazio buletinean, jolasgaraiko megafono bidez ere iragarriko dute. Kartelak jarriko dituzte, bestalde, udal azpiegitura hainbatetan; hala nola, Oiar-do kiroldegian, Gaztelekuan edota Sutegin.

Azoka solidario horretan bildutako laguntza, aipatu moduan, AEK-ri bideratuko diote, Udarregi ikastolak erositako kilometroaren bidez. Horrekin batera, ikastola bitan

irtengo da hilaren 19an euskararen alde. Bazkalostean, Korrika Txikia ospatuko dute eta gauean, 23. Korrikan lekukoa eramango dute. Argazkiko protagonistek parte hartu zuten duela bi urteko 22. edizioan. Oroitzapen ederra dute orduko hartaz. Ikasleok lekukoa eramateko ohorea izan zuten. Zirrara handiko une hau berrituko dute laster, guztiok bezala.

"JOSTAILUAK, JANARIA, LIBURUAK ETA ESKULANAK EGONGO DIRA SALGAI"

23. Korrika

Martxoak 11-15

- 16:15-16:45 AEK laguntzeko azoka solidarioa Agerialdeko patioan.
- Antolatzailea: Udarregi ikastola.

Martxoak 13, asteazkena

- 18:00etan hasita, Aginagako Eliza Zaharrean: bertsolari-tzaren eta bertsoen mundua ezagutzeko tailerra.
- Ondoren, bertso-saioa: Onintza Gartziak gidatuta, Uxue Fernandez, Aitor Agirre, Antton Fernandez eta Lierni Rekondo arituko dira bertso-tan.
- Azkenik, afari-legea.

Martxoak 19, asteartea

- 14:30-16:30 Korrika txikiak kaxkoan, Aginaga eta Zubietan.
- 17:00-18:30 Familia plana Zirimararekin.
- 18:30-19:30 Txokolatada.
- 19:30 Bertso-saioa.
- Ondoren, auzoetakoak, auzoetara. Giharrak eta barrena girotzeko aukera Aztarrrika-koekin.
- 22:53-22:57 23. Korrika.

Martxoak 20, asteazkena

- 19:00 "Nazioa eta Hizkuntza: Humboldtekin Korrika" aurkezpen-solasaldia.

Asteburuko eskubaloi partidak, bertan behera

Otsailaren 17ko partida batean, entrenatzaile batek epailea erasotu zuen. Gertaera hau salatzeke, Gipuzkoako Eskubaloi Federazioak agiri bat plazaratu eta bertan behera utzi zituen aurreko asteburuko txapelketa guztiak.

Aurreko asteburuan ez ziren jokatu Oiarde kiroldegian iragarritako eskubaloi partidak. Izan ere, Gipuzkoako Eskubaloi Federazioak bertan behera utzi zituen bilgune honek kudeatzen dituen txapelketei lotutako neurketak. Hau guztiak azaltzen duen komunikatua plazaratu du egunotan Gipuzkoako Eskubaloi Federazioak eta jakinarazi duenez, azken aldian epaileak jasaten ari diren indarkeria da erabaki hau hartzeko zergati nagusia.

“Joan den otsailaren 17an, Gipuzkoako Eskubaloi Federazioak antolatutako partida batean, entrenatzaile batek arbitroari egindako eraso” mugarrigarrantsua izan zen Federazioarentzat. Biharamunean, “Gipuzkoako Federazioako presidentek, WhatsApp bidez, komunikatu bat bidalitzen Gipuzkoako klubetako presidente guztiei, euren entrenatzaileei epaileekin erres-



“Ezinbestekoa da guztiok jarrera argia eta bateratua izatea indarkeriaren aurrean”, Eskubaloi Federazioak aditzera eman duenez. ARGAZKIA: ZKE ESKUBALOIA

petu handia izateko eskatuz, besteak beste. Horrez gain, astelehenean, hilak 19, Euskadiko hiru lurralde federazioek eta Euskadiko Federazioak agiri ofizial bat idatzi zuten arbitraje-estamentuari argi eta garbi babesa emanaz eta otsailaren 17an gertatutako egoera tamalgarriak saihesteko neurriak hartzeko konpromisoarekin”.

Gutxienez beste sei eraso

Emandako urrats hauek ez ziren nahikoak izan. Duela bi asteburu, “gutxienez 6 partidetan, arbitraje-kolektiboari eraso egin zaio berriro, ez fisikoki, baina bai hitzen bitartez”.

Testuinguru honetan, federazioa epaileekin bildu eta martxoaren 3ko herrialde

mailako eskubaloi neurketak bertan behera uztea erabaki zuten “Federazioak antolatutako lehiaketa osoan, indarkeria-mota guztiak aho batez gaitzesten direla adierazteko”.

Erabaki honek, nabarmendu nahi izan dutenez, “gogoe-ta-jardunaldi bihurtzea nahi dugu. Gipuzkoako eskubaloiaren familia osoak hausnar dezan eta jabetu dadin gure partidetan indarkeriak hartzen ari duen norabidea aldatu behar dela, egungo egoera jasanezina baita”.

Erabakigarritzat jotzen duten une honetan, hartu duten erabaki hau “gure kirolean inflexio-puntua izatea espero dugu. Ezinbestekoa da guztiok jarrera argia eta bateratua izatea indarkeriaren aurrean, horrela gure kirolaz eta haren berezko balioez gozatzeko aukera izan dezagun: errespetua, elkartasuna eta laguntasuna”.

Indarkeriaren aurkako batzordea

martxoaren 13an elkartuko da Babesik ez zaiela falta adierazi du Gipuzkoako Eskubaloi Federazioak. Eskubaloian murgilduak diren eragile guztiei martxoaren 13an 19:00etan Donostiako Kirol Etxean indarkeriaren aurkako batzorde bat sortzeko bilera deitu diete.

Futbol partidak

Martxoak 09, larunbata
Haranen

- 9:00 Infantil mutilak: -Usurbil FT B
- Antigua Luberrri KE B
- 10:30 Kadete mutilak: Usurbil FT-Touring CD B
- 12:15 Kadete mutilak: Usurbil FT B-Danena KE C
- 14:00 Kadete neskek: Usurbil FT B-Touring CD B
- 15:45 Erregionalak: Usurbil FT B-San Marcial CD
- 18:00 Preferente neskek: -Usurbil FT
- Hondarribia FE

Martxoak 09, larunbata
Haranetik kanpo

- 11:00 Infantil mutilak, Zarauzko Asti Txikin: Zarautz KE C-Usurbil FT
- 15:45 Preferente mutilak, Astigarraga, Zarkumendegin: Mundarro FKE-Usurbil FT

Martxoak 10, igandea
Haranen

- 09:00-12:00 Futbol Eskola
- 12:15 Infantil neskek: Usurbil FT-Mariño CD
- 15:30 Kadete neskek: Usurbil FT-Mondragon CF
- 17:30 Jubenilak B: Usurbil FT B-Mariño CD B

Eskubaloia Oiardon

Martxoak 09, larunbata

- 10:00 Infantil neskek: -Usurbil KE B
- Endañeta Pulpo EK
- 17:30 Senior neskek: -Urbil Usurbil KE
- Tolosa CF Eskubaloia

Boleibola Oiardon

Martxoak 09, larunbata

- 12:45 Infantilak: Udaregi-Tolobolei
- 12:45 Kadeteak: Udaregi-Aiztondo

Pilota Usurbilen

Martxoak 08, ostirala

- Infantil 2. Mailan, 17:45: -Pagazpe (Alejo-Alejo)
- Oiarpe 4
- Kadete 1. Mailan: -Pagazpe (Alejo-Pagola)
- Tolosa 3

Joko Garbi Zubietan

Martxoak 9, larunbata. 16:00: Ezker Hormako Kluben Arteko Gipuzkoako Txapelketa. Alebi-nak, infantilak, jubenilak eta nagusiak.

MERKATU TXIKIA

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUAN

Bi logelako pisu bila nabil. Presazkoa da: 643 022 475.

Neska edo emakume batentzako logela bat daukagu alokatzeko Usurbilen. 609 647 728.

Oztopo arkitektonikorik gabeko etxebizitza txiki baten bila gabiltza. 627184674

MOTORRA

SALMENTA, GARAJEAK

Garaje itxia salgai herri sarreran. 646 601 947 (18:00etatik aurrera).

Garajeko marra bat eskaintzen da errentan hartzeko, herriaren erdialdean. 636601644.

Munalurra 4 zenbakian lokal bat daukagu alokatzeko. 652 765 583.

LANPOSTUAK

LAN ESKAINTZAK

IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUA!KO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

DBH3ko ikasle bati matematika, fisika eta kimikako errefortzu-klaseak emango dizkion unibertsitateko ikasle bat behar dugu. 615 75 84 76.

Saizarren zerbitzaria behar da, ostiral iluntzetik igande arratsaldera arte lan egiteko. 649 844 727.

Aginaga sagardotegian txotx garaian larunbat eguerditan zerbitzaria behar da. 943 366 710.

Sukaldari laguntzailea behar dugu lanaldi osorako Kalezarko Matiaeren auzuneko kafetegirako. 670 654 272.

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Umeak zaindu, eskolara eraman edo etxekolanak egiteko prest. Goizez edo arratsaldez aritzeko 616273785.

LANPOSTUAK

LAN ESKAERAK

Lursail ez urbanizagarri baten bila nabil Usurbilen, Aginagan edo Zubietan. 617 771 303.

Pertsona helduen zein haurren zaintza lanak egiteko lan bila nabil. Baita zerbitzari edo garbiketa lanetarako ere. Orduka zein interna

aritzeko disponibilitatearekin. 687126811

Pertsona helduarentzako laguntzailea behar dugu Antiguon astean bost orduz, euskaraz dakiena. Eusko Jaurilaritzaren titulua ezinbestekoa. 609 582 242

Pertsona helduak zaintzeko, garbiketa lanetarako... 672 730 902

Garbitasun lanak egingo nitzuke. 9:00-16:00 arteko disponibilitatea. 632157186

Neska euskalduna umeak ikastolara eramateko edo zaintzeko prest legoke. 635 007 449 (Leire).

Astean zehar zein asteburuetan haurrek zaintzeko prest dagoen neska usurbildarra naiz. 676584506.

BESTELAKOAK

Belarritako bat aurkitu genuen kalean, abenduaren 8aren inguruan. Galdu baduzu deitu honako telefono zenbakira: 607 168 352.

TELEFONO INTERESGARRIAK

Udala	943 371 951	Gure Pakea Egoitza	943 368 770
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Gure Elkarkea Egoitza	686 554 145
Udaltzaingoa	943 361 112	Arrate Zahar Egoitza	692 898 492
Sexu Aholkularitza Gunea	697 919 516	Salbatore Parrokia	943 361 239
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Bake Epaitegia	943 372 336	Anbulategia	943 362 013
Oiardo Kirolegia	943 372 498	Amenabar botika	943 376 076
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Iturralde botika	943 363 395
Potxoenea	943 371 999	DYA	943 464 622
Kzgunea	943 023 684	Gurutze Gorria	943 272 222
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Emergentziak	112
Etumeta AEK euskaltegia	607 609 379	Genero-indarkeria, arreta	016
Kalezar Eguneko Zentroa	943 365 249	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163

GUARDIAKO FARMAZIAK

Osteguna, 07	GANDARIAS-URIBE: Iñigo Loloia 9, Lasarte / 943 01 95 21
Ostirala, 08	ORUE Jaizkibel plaza 2, Lasarte / 943 36 26 52
Larunbata, 09	ORUE Jaizkibel plaza 2, Lasarte / 943 36 26 52
Igandea, 10	ORUE Jaizkibel plaza 2, Lasarte / 943 36 26 52
Astelehena, 11	DE MIGUEL Kale Nagusia 32, Lasarte / 943 37 11 51
Asteartea, 12	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte / 943 36 17 74
Asteazkena, 13	URBISTONDO San Franzisko 1, Lasarte / 943 36 65 67
Osteguna, 14	ORUE Jaizkibel plaza 2, Lasarte / 943 36 26 52
Ostirala, 15	GIL MARTIN Kale Nagusia 24, Lasarte / 943 36 07 08
Larunbata, 16	URBISTONDO San Franzisko 1, Lasarte / 943 36 65 67
Igandea, 17	URBISTONDO San Franzisko 1, Lasarte / 943 36 65 67

GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)

SABORIDO RODRIGUEZ, MIREN: Mañe i Flaquer plaza, 6 Hernani 943 57 64 77

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:

COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play-etik edo AppStore-etik.

Urte askotarako!

Zorion itzazu senitartekoak eta lagunak:

Posta elektronikoa

Mezua bidali erredakzioa@noaua.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta ipini nahi duzun testua.

Bulegoa

Etor zaitze gure bulegora edo telefonoz deitu: 943 360 321.

Oharra:

Asteleheneko 17:00ak arte jasotako zorion-agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Asteleheneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

HILDAKOAK



Txaro Artze Agirre
Otsailaren 27an hil zen,
83 urterekin.



Heliodoro Jorge Clemente
Otsailaren 27an hil zen,
82 urterekin.

HILDAKOEN BERRI EMATEKO:

943 360 321 edo erredakzioa@noaua.eus

- ▶ Asteleheneko 17:00ak arte jasotakoak emango ditugu argitaratu.
- ▶ Gainontzekoak, hurrengo asteko astekarian.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

OSTEGUNA 07

AGINAGA Soinurbilen hasiera
Eliza Zaharrean

Zumarte Musika Eskolak antolaturiko zikloaren hasiera. Zumarteko talde instrumentalak Orbeldi Dantza Taldearekin emanaldi bateratua.
18:30ean Aginagako Eliza Zaharrean.



Soinurbil musika zikloa ostegun honetan abiatuko da, Aginagako eliza zaharrean.

OSTIRALA 08

USURBIL Martxoak 8
eguneko egitaraua

18:00. Emakumeon Etxeko II. Asanblada, Potxoenean.
19:30 elkarretaratzea, Mikel Laboa plazan.
21:00. Pikoteo musikatua, Artzabalen. Sarrerak otsailaren 28an jarri zituzten salgai (10 euro), Aitzagan, Txirristran eta Artzabalen.
Egun osoko jarduera.

USURBIL "Fruitu arbolen udaberriko eta zotzoko txertaketa" ikastaroa

Alkartasuna kooperatibaren eskutik, arratsaldeko 15:30etik 18:30era artean, Potxoenean. "Josu Osa adituarekin 8 txerto mota baino gehiago ikasiko ditugu", iragarri dute antolatzaileek. Izen-ematea, 943 361 114 telefono zenbakira deituz edo alkartasuna.eus web orrialdearen bitartez.
15:30-18:30 Potxoenean.

Zumarte eta Orbeldiren emanaldi bateratua

Zumarte Musika Eskolak antolatzen duen zikloa 20. ediziora iritsi da. Eta okasiorako, egitarau oparoa iragarri du musika eskolak. Herri sor-kuntza tartekatuko du hitzorduetan, elkargune gehiagotara hedatuko da eta iraupenari begira, besteetan baino luzeagoa izango da. Lehen hitzordua, ostegun honetan Aginagan.

XX. Soinurbil

Martxoak 7, osteguna

Zumarte Usurbilgo Musika Eskolako talde instrumentalek kontzertua eskainiko dute. Ez dira oholtzara igoko diren bakarrak. Orbeldi Dantza Taldeko kideek ere parte hartuko dute ikuskizunean.

18:30 Aginagako Eliza Zaharrean.

NOAUA!ko Batzar Nagusia

Martxoaren 13an asteazkena, NOAUA!ko bazkideek hitzordu garrantzitsua dute: Batzar Nagusia, Potxoenean. 17:30ean izango da lehen deialdia, 18:00etan bigarrena. Hauxe izango da gai-ordena: 2023ko memoria eta balantze ekonomikoa, 2024ko egitasmoak eta aurrekontuak, Zuzendaritza Batzordearen osaketa eta onarpena, eta galdera-erantzunak.

'Treba gurasoak' ikastaroa

Beste bi saio gehiago iragarri dituzte martxorako:

- Martxoak 14 osteguna, 17:30ean Potxoenean: "Pornografia gaur egungo sexu-heziketa ote?", Eider Goibururekin.
- Martxoak 21 osteguna, 18:00etan Potxoenean: "Komunikazioa familian. Guraso eta seme-alaben arteko harremanak eta komunikazioa hobetzen", Leyre Canorekin.
- Antolatzaileak: Gaztelekua, Hitz Aho guraso elkarte, Usurbilgo Udala eta Foru Aldundia.

Iñaki Zabaletaren hitzaldia

Martxoak 20, asteazkena

- 19:00 Liburu aurkezpen-solasaldia: Iñaki Zabaletaren "Nazioa eta hizkuntza, Humboldttekin solasean".
- Iraupena: Ordubate.
- Antolatzailea: Sute-gi udal liburutegia.

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugu!
eguneko menua · asteburuko menua
oilasko erreak, ogitartekoak, razioak..
paellak enkarguz!
943 54 43 12 Zubiaurrenea 6, Usurbil.

943 361182
EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL

JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiaurrenea 8, USURBIL
943 37 00 08

Otar-Goxo
Elizagaia
Zubiarrene 2, 943 36 55 81



Pirritx, Porrotx
eta Marimotots

EZ GARA JAITSIKO!

Martxoak 15, ostirala
Sarobe antzokia. URNIETA
Bi saio: 17:00 / 19:00

8€ Sarrerak salgai:
2KN, Ernaitza, Aiuurri

AIURRI
23. korrika
EAK
aek
INISTORRI
Urietako Eskultzaileen
Biltzarra
AIURRI
URNIETARRENA DA

NOAUA! KULTUR ELKARTEKO BAZKIDEEN BATZAR NAGUSIA

MARTXOAK 13, ASTEAZKENA - POTXOENEAN

1. deialdia 17.30 / 2. deialdia 18.00

GAI-ZERREDA:

- 1) 2023ko memoria eta balantze ekonomikoa
- 2) 2024ko egitasmoak eta aurrekontuak
- 3) Zuzendaritza Batzordearen osaketa eta onarpena
- 4) Galdera erantzunak

noaua



URDAIRA

Sagardotegia

943 37 26 91

Aginaga

Astelehenak itxita

  @urdairasagardotegia | www.urdairasagardotegia.com



OTSUA-ENEA SAGARDOTEGIA

943 55 68 94

Osinaga bailara, HERNANI



LARRE-GAIN DOLARE SAGARDOTEGIA

Urtarrilaren 19tik maiatzaren 5era
TXOTX GARAIA

Hernanitik autobus zerbitzu propioa larunbatetan
Igande gaua eta astelehenetan ITXITA

Larre-Gain Baserria Ereñotzu - Hernani

Tel: 943 55 58 46 Mugik: 616 287 867

www.iruinsagardotegia.com



ELUTXETA

SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelehen eta astearte izan ezik.



Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) •  943 55 69 81

SAIZAR

Sagardotegia

www.sidrassaizar.com



943 37 39 95



SAGARDOTEGIA

aginaga

URTE OSOAN
ETXEAN EGINDAKO
SAGARDOA
astelehenetan itxita

Tfno-fax: 943 36 67 10
Aginaga auzoa, 20170 USURBIL
info@aginagasagardotegia.com
www.aginagasagardotegia.com



Txotxetik sagardoa
jarraitu usadioa!

ORDUTEGIA:

Asteazken eta ostegunak: 20:00-01:00

Ostirala: 13:30-18:00 / 20:00-01:00

Larunbata: 13:00-18:00 / 20:30-01:00

Igandea: 13:30-18:00

%100 bertako saarra

Tel: 943 365 031

Santuenea

